



ATHLETIC, GURPEGI. Carlos Gurpegiren ustezko positiboak hautsak harrotu ditu talde zuri-gorrian. Jokalariak dio ez duela legez kanpoko produkturik hartu. Jokalari, teknikari, mediku eta zuzendariak babes osoa erakutsi diote futbolariari.

«Ez dut ezer hartu»

Gurpegik errugabea dela adierazi du, taldeko zuzendarien, teknikarien, medikuen eta jokalariren babesean



LUIS TEJIDO / EFE

Carlos Gurpegi taldekideez inguratuta, atzo eginiko agerraldian.

Haritz Gallastegi | BILBO

«Makinak bestelakorik erakutsi arren, ez du ezer hartu. Kontzientzia lasai daukat oso». Carlos Gurpegiren adierazpenak dira. Jokalariak joan de asteazkenean jakin zuen fisiologikoki arruntak baino handiagoak diren 19 norandrosterona mailak eman zituela Realaren aurka Anoetan jokaturako derbiaren ostean —taldekideek ez zuten ezer jakin Osasunaren aurkako partida amaitu arte—. Hasiera baten, «harritu» egin zuen berriak. «Baina orain lasaia nago. Gauza guztiekin bizitzen jakin behar da», azpimarratu zuen Andosillakoak.

Gurpegik, Athleticen kirol zuzendari Andoni Zubizarretak eta klubeko zerbitzu medikue-

tako nagusi Sabino Padillak egindako agerraldiak izugarriko ikusmina sartu zuen komunikabideen artean. Lehenengo taldeko kide guztien babesa ere izan zuen jokalariak.


Gurpegiren gorputzean agertutako 19 norandrosterona «be-rez» sortutako izan daitekeela uste du Padillak. Nazioarteko Olinpiar Batzordearen araudia- ren arabera, gizonezko batek ezin du mililitroko nanogramo bi baino gehiago izan. Kopuru hori baino gehiago emanez gero, positiboa da. Neurri arbitrarioa da, Padillarentzat. Giza- seme bakoitzaren gorputza ezberdina da, eta, beraz, kopuruak ere ezberdinak izan daitezke oso, «nandrolona har- tu barik gizaseme arruntak zein kirolari batek legeak aginduta-

ko 19 nor-andosterona kopurua baino gehiago eman dezakeela badakigu. Zenbait gorputzetan lau aldiz gehiago ere aurkitu da», esan zuen Padillak. «Des- hidratazioak, epe luzeko ariketa fisikoak, traumatismoak edo eta txerriak jan ondoren ager daiteke. Azken hau baztertu daiteke; izan ere, oso txerriki gutxi jaten dute jokalariek», gai- neratu zuen medikuak.

Era berean, Athleticen jokalari- eriek jaten dituzten elikagai energetikoak nandrolonaz «kutsatuta» egon daitezkeela onar- tu zuen. «Guk ez ditugu azter- tzen; prospektuan agertzen dena hartzen dugu aintzat».

Positiboaren berri jakin be- zain pronto eskatu zuen Kklubak kontranalisia. Hala ere, ez daukate esperantza handirik,

udagoieneko



Babesleak



bbk

laguntzaileak



Mikel Urdangarin

“Heldu artean” disko berriaren aurkezpena

Santurtziko Serantes Kultur Aretoan abenduak 13, ostirala, 22:00etan

sarrera: 8€